

## “EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2014-2020 EGF PROGRAMA ERAGILEAREN 2018KO URTEKO TXOSTENAREN HERRITARRENTZAKO LABURPENA”

Europako Batzordearen 2015eko abuztuaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 EGF Programa Eragilea. Bada, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarteratzea eta laneratzea hobetzeari zuzendutako jarduerak jasotzen ditu Programak Eragile horrek. Guztira, 107,65 milioi euroko aurrekontua dauka eskura. Horien erdia (54,12 milioi euro) EBk emango du, eta EAEko erakundeek emango dute beste erdia. Euskal gizartean eragin handiagoa sor eta balio erantsia gaineratu dezaketen jardueretan kontzentratu da eskura zegoen finantzazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak parte hartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Programa Eragilean, eta hainbat lurralde-eremutako beste eragile ekonomiko eta sozial batzuek edota gizarte-sektoreak parte hartzea sustatzeko asmoz diseinatu da. Programa eragilearen erakunde onuradunak hautatzeko lehiaketa-prozedura baten bidez eratu zen parte-hartze hori.

2018an, enpleguaren jasangarritasuna eta kalitatea bultzatzeko, gizarte-inklusioa sustatzeko, pobrezia eta diskriminazioari aurre egiteko eta gizarte-berrikuntza bultzatzeko lan egin dute hautatutako erakundeek.

Ardatza	Gaia	Erakunde onuradunak
1	Enpleguaren iraunkortasuna eta kalitatea sustatzea, eta lan-mugikortasuna erraztea.	Donostiako Sustapena Garapen ASLE (Euskadiko Lan Sozietateen Elkarte) Vitoria-Gasteizko Udala Bilbao Ekintza
2	Gizarte-inklusioa sustatzea, eta pobrezia nahiz edozein diskriminazio-motari aurre egitea.	Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea EHLABE EMAÚS Bilbao SCIS Sendotu Aldiberean Suspergintza Elkarte
6	Gizarte-berrikuntza	Lea Artibai Lanbide Heziketako Eskualdeko Eskolako Kooperatiba Elkarte Bizkaiko Foru Aldundia

**2018ko exekuzio-txostenean, erakunde horien jarduketak biltzen dira, bai eta jarduketok urte honetan izandako emaitzak ere.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, EAeko enplegu-politika aktiboetan organismo eskuduna izaki, erabilgarri dagoen aurrekontuaren erdia dauka esleituta. 2018an, hainbat jarduketa jarri ditu abian 1. eta 2. ardatzetan. 1. ardatzeko jarduketek kualifikazioa hobetzea izan dute helburu, eta, horietan, 120 lagunek (86 gizon eta 34 emakumek) parte hartu dute. Horietako 116 (82 gizon eta 34 emakume) langabeak ziren. Aurreko deialdietako parte-hartzaileak izanik 2018an ekintzetan — baita kontratatzeko laguntzetan ere— parte hartzen ari ziren pertsonak kontuan hartuta, guztira 8.512 lagunek (4.130 emakumek eta 4.382 gizonek) parte hartu dute.

2. ardatzean, berriz, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko programetan lan egiten jarraitu da, merkatu arruntean lan egin dezaten sustatzeko ekintzen bitartez.

Gainerako erakunde onuradunek 2.237 pertsona artatu dituzte 2018an, eta horien % 51,32 emakumeak izan dira.

1. ardatzean, alegia, enpleguaren jasangarritasuna eta kalitatea sustatzea eta lan-mugikortasuna erraztea helburu duenean, ekintzaileei orientabidea, prestakuntza eta laguntza emateko ekintzak bideratu dira. Guztira, 454 parte-hartzaileekin lan egin da, eta pertsona horien % 52,42k ekintzetan parte hartzearen ondorioz enplegua eskuratzea lortu da. Ardatz honetan, emakumeen laneratze-tasa (% 55,38) gizonena (% 48,45) baino handiagoa izan da.

2. ardatzeko, hau da, gizarte-inklusioa sustatzea, eta pobrezari nahiz edozein diskriminazio-motari aurre egitea helburu dueneko, jarduketei dagokienez, bazterketan edo egoteko arriskuan dauden 1.766 lagunekin (890 gizonekin eta 876 emakumerekin) lan egin da. Laneratzeko zailtasunik handienak zituzten pertsona-taldeentzako laneratze-ibilbideak prestatzea izan dute helburu, funtsean, ardatz honetako jarduketek. Mota horretako jarduketetan parte hartu duten pertsonen % 18,44k (gizonen % 18,48k eta emakumeen % 18,41k) enplegua eskuratu dute.

Azkenik, 6. ardatzaren, gizarte-berrikuntzari buruzkoaren, barruan, bi programa burutu dira: TEP programa, zeinak helburu baitu goi-mailako teknologiko sektoreen inguruko prestakuntza emanez landa-eremuetako talentuari eustea edo hura erakartzea, langabeentzako lan-praktikak garatzea, eta gizarte-berrikuntzako programen deialdia egitea. Eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Berrikuntza Sustatzeko programa.

Laburbilduz, programa eragile honen barruko jarduketei esker, 1.642 langaberi eman zaie arreta, eta horietako 935 luzaroko langabeak ziren. Halaber, parte-hartzaileen % 25,66 (gizonen % 24,24 eta emakumeen % 27,00) laneratzea lortu da.